

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 80.000 bat euro erabili ditu Aurizberriko bide-sare eta jolas-eremu baterako

Haren helburua udalerriko kultur eta natur balioak sustatzea da

Viernes, 21 de noviembre de 2014

Nafarroako Gobernuak guztira 79.813 euro erabili ditu Aurizberriko bide-sare eta jolas-eremu bat sortzeko, udalerriko kultur eta natur balioak sustatzeko asmoz.

Gaur goizean egindako azpiegitura horien inaugurazioan, Landa Garapeneko zuzendari nagusi Juan Pablo Rebolé izan da.

Bide-sarearen sorreraren helburua udalerriri miliario (galtzada erromatarren elementuak), bunker eta estelatan oinarritutako kultur eta naturako turismo-zerbitzua ematea da. Horretarako, beste ekintza batzuen artean, komunikazioko bide zaharrak berreskuratu dira (Sorogaingo bidea, adibidez), Nafarroako natur bideen sarean sartuko dena; lurrak egokitzeko obrak (sastrakak eskuz kentzea eta inausketak); eta ekipamenduak, informazio-taulekin eta seinale bertikalekin.

Jolas-eremuari dagokionez, Aurizberriko kultur eta natur balioei erreferentzia egiten zaien gaikako zonaldea da. Hainbat zatitarako elementuak jarri dira haur eta helduentzat, ur-gune nahiz gune biosasungarriekin. Zehazki, haurren gunean, segurtasunezko lurzorua, material perimetrala eta harea duen gune bat jarri dira.